HAIEK GABE, ARGAZKIA EZ DAGO OSATUTA

PANELAK

1. panela. Emakumeen eskubideak	2
2. panela: Emakumeak Unibertsitatean	3
3. panela: Topaketak Lyceum Clubean	5
4. panela: Las Sinsombrero	6
5. panela: Miretsiak eta zentsuratuak	7
6. panela: 27ko Belaunaldia	8
7. panela. Ernestina de Champourcin	9
8. pane a: Carmen Conde	10
9. panela: Concha Méndez	11
10 panela: Josefina de la Torre	12
11. panela: Arte guztietan	13



web: https://unav.edu/expo-mujeresG27

Panel 1. Emakumeen eskubideak

XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan, emakumeen eskubideen iraultza izan zen Espainian. Bigarren Errepublikaren aurretik, emakumeek senarren baimena behar zuten lan egiteko edo ikasteko, baina Errepublikak gizartea aldarazi zuen, eta une horretako legeriarik aurreratuenetakoa ekarri zuen.

1910. **Goi-mailako hezkuntzarako sarbidea**. Emakumeek lortu zuten unibertsitatean matrikula egin ahal izatea gizonen baldintza beretan. **Emilia Pardo Bazán** Instrukzio Publikoko kontseilari izendatu ondoren eman zen dekretu hori.

1915. **Andereñoen Egoitzaren sorrera**. María Maeztuk zuzenduta, emakumeen unibertsitate-hezkuntza eta ostatatzea sustatzeko lehen zentro ofiziala sortu zen Madrilen.

1918. **Espainiako Emakumeen Elkarte Nazionalaren (ANME) sorrera.** Consuelo González Ramosek eta María Espinosa de los Monterosek sortu zuten, eta herrialdeko lehen erakunde feminista nagusia da, sufragista eta eskubide zibilen aldekoa.


1924. **Lehen emakume zinegotziak, eta boto-eskubide mugatua**. 25 urte baino gehiagoko emakumezkoei boto-eskubidea aitortu zitzaien (ezkonduei izan ezik). Urte horretan berean izendatu ziren lehen emakume zinegotziak Espainiako udaletan.

1926. **Lyceum Club Femenino elkartearen sorrera**. Besteak beste, María Maeztu, Victoria Kent eta Zenobia Camprubí intelektualek sustatu zuten, eta kulturaren, hezkuntzaren eta gizarte-eztabaidaren epizentro bilakatu zen garai hartako emakumeentzat.

1931. **Emakumeen sufragio unibertsala onartzea.** Bigarren Errepublikan, eskubide politikoak parekatu egin ziren. Clara Campoamor diputatuak parlamentuan gidatutako eztabaida baten ondoren, emakume guztien boto-eskubidea onartu zen.

1932. **Dibortzioaren eta ezkontza zibilaren legeak.** Lehen aldiz, legezko dibortzioa onartu zen, ezkontideak ados egonez gero edo bietako batek bidezko arrazoi batengatik eskatuz gero, eta ezkontideen arteko berdintasun juridikoa ezarri zen horrela.

1933. **Emakumeek botoa eman zuten lehen hauteskundeak**. 1933ko azaroaren 19an, Espainiako 6 milioi emakumek baino gehiagok botoa eman zuten lehen aldiz hauteskunde orokor batzuetan, gizonen baldintza beretan.



Zenobia Camprubik bere iloba Inesentzat antolatutako txangoa, 1930 inguruan. Irudian Ernestina de Champourcin, Marga Gil Roësset —lautearekin— eta bere arreba Consuelo Gil Roësset agertzen dira. Argazkiak Zilar Aroko idazle eta artistak batu zituen adiskidetasun eta konplizitate intelektualaren sareak islatzen ditu

2. panela. Emakumeak Unibertsitatean

Zenbat emakumek zekiten irakurtzen eta idazten?

1920tik 1930era bitartean, Espainian emakume asko eta asko alfabetatu eta unibertsitatean sartu ziren.

XX. mendearen hasieran, emakume gehienak analfabetoak ziren. Hala ere, lehen hezkuntzako eskolen hedapenaren ondorioz eta II. Errepublikan indartutako hezkuntza-erreformen ondorioz, gero eta emakume gehiago hasi ziren irakurtzen eta idazten ikasten.

Urtea (errolda)	Emakumeen alfabetatze-tasa	Emakumeen analfabetismo-tasa	Testuingurua eta bilakaera
1920	~ % 34 - % 41	~ % 59 - % 66	Gazteenen artean (16-20 urte), alfabetatzea ia % 58koa zen.
1930	~ % 60 - % 63	~ % 37 - % 40	Aurrerapen handia izan zen, lehen hezkuntzako eskolatzeak bultzatuta; milioi bat pertsona baino gehiago alfabetatu ziren hamarkada horretan.
1936	~ % 65 - % 70	~ % 30 - % 35	Gero eta analfabeto gutxiago zeuden, milaka eskola publiko sortzeko planari esker

Genero-arrakala: 1920an, alfabetaturiko gizonen eta emakumeen arteko aldea ehuneko 10 puntutik gorakoa zen. 1930erako, arrakala hori izugarri murriztu zen hiriguneetan.

Zenbat emakume zeuden unibertsitatean?

Unibertsitate-ikasketetarako sarbidea

1910eko Errege Aginduaren ondoren, emakumeek aukera zuten unibertsitatean sartzeko, administrazio-baimen berezirik gabe. Hortik aurrera, unibertsitatean ikasten zuten emakumeen kopurua modu esponentzialean hazi zen.

Matrikulatutako emakumeen bilakaera

Ikasturtea	Unibertsitateko emakume ikasleen kopurua	Ikasle guztien gaineko ehunekoa
1919-1920	~ 345	~ % 1,0
1927-1928	~ 1.225	~ % 3,5
1929-1930	1.744	~ % 5,2
1932-1933	2.047	~ % 6,7

Zer ikasketa egiten zituzten?

Ikasketen araberako banaketa (1929-1930 ikasturtea)

Hasieran, unibertsitatean sartu ziren emakume gehienek hezkuntzari, letrei edo zainketei loturiko ikasketak hautatu zituzten, baina gutxika-gutxika zientzia-arloan sartzen hasi ziren:

1. **Farmazia (unibertsitateko emakume guztien ~ % 45):** 760 emakume matrikulatu. Gehienek hautatutako ikasketak izan ziren; izan ere, farmazia-bulego baten arduradun izateak independentzia ekonomikoa ematen zuen, eta gizartean begi onez ikusia zen.
2. **Filosofia eta Letrak (~ % 29):** 488 emakume matrikulatu. Oso hedatua zegoen irakaskuntzan edo kulturaren eta liburutegien kudeaketan aritu nahi zuten emakumeen artean.
3. **Zientziak (Kimika, Biologia, Zientzia Zehatzak):** 222 emakume matrikulatu.
4. **Medikuntza:** 199 emakume matrikulatu.
5. **Zuzenbidea:** 43 emakume matrikulatu. Gradu honetan, emakumeen kopurua pixkanaka hazi zen, emakumeen eskubideak defendatzen zituztenek bultzatuta, hala nola Clara Campoamorrek eta Victoria Kentek.

Aldi horretako funtsezko erakundeak: Hainbat erakunderen babespean hazi zen emakume ikasleen kopurua. Besteak beste, **Andereñoen Egoitzak** (María Maeztuk sortua 1915ean) eta **Lyceum Club Femenino** elkarteak (1926) ostatua ematen zieten goi-mailako ikasketak egitera Madrilera joaten ziren emakumeei, eta laborategi propioak, liburutegiak eta laguntza-sareak ere bazituzten.


22 Marzo 1928

30 cts.

Estampa

Revista Gráfica y Literaria de la Actualidad Española y Mundial - Editada en Stio. de Rivadeneyra

Paseo de San Vicente 20 — MADRID

Director Propietario: Luis Montiel

Redactor-jefe: Vicente Sánchez Oseña

Año I - Núm 21

LA ENSEÑANZA DE LA MUJER: Un grupo de las lindas muchachas alumnas de la Asociación para la Enseñanza de la Mujer, la admirable institución de que habla en un artículo de este número nuestro compañero Ignacio Carral.

© Biblioteca Nacional de España

Estampa, 1928ko iraila. Emakume unibertsitarioei buruzko erreportajea; hartan islatzen da zein azkar hasi ziren emakumeak unibertsitatean sartzen.

3. panela. Topaketak Lyceum Clubean

Estatutuen arabera, Lyceum klubaren xedea zen "emakumeen interes moralak eta materialak defendatzea, horretarako onartuz, bideratuz eta garatuz emakumeen onurarako diren ekimen eta jarduera ekonomiko, ongintzazko, artistiko, zientifiko eta literario oro".

Klubeko Literatura Atalak hitzaldiak eta errezitaldiak antolatzen zituen, eta aholkuak ematen zizkien bidea urratu nahi zuten emakume idazleei. Atal horretako kideak izan ziren lehenak emakume askoren lanak aldarrikatzen, garrantzi handikoak izan arren ez baitzuten aintzatespenik izan historian zehar.

> "Ostiralean edo larunbatean «emakumezkoen poesia-txapelketa» izanen da Lyceum klubean. Hartan ariko dira **Santa Teresa, sor Juana Inés de la Cruz, Gertrudis Avellaneda, Carolina Coronado**; finean, aitzindari guztiak, eta gero... gu; hau da, **Concha Méndez Cuesta, Rosa Chacel, Josefina de la Torre, Isabel Buendía, Pilar Valderrama, zu eta ni**". (Gutun-liburua, 1928-05-09)

Lyceum klubak isekak jaso eta mesfidantza eragin zuen. Bazkideez esaten zuten «mari-maisuak», «txolinak» eta «arriskutsuak» zirela, eta klubari berari «*el club de las maridas*» esaten zioten, emakume horien senarrei aipamena eginez. Jacinto Benaventek uko egin zion klubean hitzaldi bat emateari, esaldi ospetsu baten bidez: «Ezin dut hitzaldi bat eman ero-eroan» (gaztelaniaz erabili zuen esamoldeak, *a tontas y a locas*, "ero-eroan" ez ezik "tuntun eta txoroei" ere esan nahi du). Hala ere, beste egile batzuek babesa eman zieten, hala nola Lorcak, bertan egin baitzuen *Romancero gitano* lanaren lehen irakurketa publikoetako bat.



Lyceum klubak 1936an Ernestina Champourcini egindako omenaldiaren argazkia

5. panela. Las Sinsombrero

20ko hamarkadan, emakume artista, idazle eta pentsalarien talde bikain batek beren gizonezko kideen espiritu abangoardista, urratzaile eta. intelektual bera partekatu zuen; haiekin batera prestatu eta lan egin zuten. Haien lanek arteak modernizatzen lagundu zuten, eta emakumeen aintzatespen sozial eta kulturalerako bide berriak ireki zituzten. Sortzaileak, idazleak eta artistak izan ziren, baina baita kritikariak, itzultzaileak eta editoreak ere, eta beren garaiko bizitza intelektual eta kulturalean aktiboki parte hartu zuten. Hainbat esparrutatik, arteak berritzen eta emakumeek kulturan presentzia eta aintzatespen handiagoa izateko gune berriak irekitzen lagundu zuten.

27ko belaunaldiko emakume idazleek elkarri laguntzeko sare eraginkorra sortu zuten Lyceum Clubaren eta gutun-truke oparoaren bidez., **Ernestina de Champourcin, Carmen Conde, Concha Méndez** eta **Josefina de la Torre** poetak, baita pentsalariak eta eleberrigileak ere; esaterako, **María Zambrano** eta **Rosa Chacel**, hurrenez hurren. Elkarri laguntzeko sare eraginkorra sortu zuten, Lyceum klubaren bidez eta posta-truke sarriaren bidez.

Erbesteak eta gerraosteko zentsurak haien arrastoa ia guztiz ezabatu zuten arren, egungo kritikak haien ondarea berreskuratu du, eta herritarren artean aditzera eman da “Las sinsombrero” izeneko dokumentalari esker (Balló, 2015).

5. panela. Miretsiak eta zentsuratuak

Kontrakoa pentsatu ohi den arren, 20ko eta 30eko hamarkadetan emakumeak aintzat hartu ziren kulturaren eta literaturaren eremuan. Espainian, emakume idazle asko irakurriak eta argitaratuak ziren, haien lanek kritikaren arreta jasotzen zuten, eta haietako asko literatur kritikari gisa ere aintzat hartzen zituzten.

Adibidez, 1928an "El secreto de los poetas" (poeten sekretua) izeneko atala abiatu zuten *La Gaceta Literaria* aldizkarian. Elkarrizketatutako lehen egilea Ernestina Champourcin izan zen. Horrek inbidia piztu zion Federico García Lorcarei, eta poema hau idatzi zion aldizkariko zuzendari Melchor Fernández Almagrori:

"Uste dut jada ez nauzula estimatzen.
Ai, Melgarejo banintz!
Ai, Ernestina banintz!
Ai, Maruja Mallo banintz!"

Hala ere, zailtasunak ere izan zituzten. Bizitza intelektuala kafetegi, solasaldi eta antzeko kultur giroetan garatzen zen, eta halako eremuak gizonezkoentzako gunetzat jotzen ziren. Horregatik, emakumeek gune propioak sortu behar izan zituzten, Lyceum Club Femenino adibidez, beren bizitza kulturala eta intelektuala garatzeko. Beste kasu batzuetan, senarrekin lankidetzan aritu ziren lanak sortzen eta itzultzen, baina beren izenak ez ziren agertzen lan horien sinaduran.

Hala ere, benetako arazoa geroago etorri zen. Gerra Zibilean, emakume idazleen belaunaldi hori sakabanatu egin zen, eta diktadura frankistaren garaian haietako asko isilarazi edo zentsuratu zituzten. Ondoren, kritikari eta historialariek ere emakumeen izenak isildu zituzten, eta haien ondarea ezabatu. Azken hamarkadetako ikerketa- eta dibulgazio-lanei esker, beren garaian izan zuten garrantzia eta bete zuten zeregina aitortu dira.



La Gaceta Literaria

ibérica:americana:internacional

LETRAS—ARTE—CIENCIA

Periódico quincenal (1 y 15 de cada mes)

AÑO II — MADRID, 15 DE JULIO DE 1928 — NÚM. 30

30 CÉNTIMOS

DIRECTOR-FUNDADOR: E. Giménez Caballero
SECRETARIO: Guillermo de Torre

EUROPA: CONFERENCIAS: RAID

12.302 Kms. literatura

por E. Giménez Caballero

BUENOS AIRES: LITERATURA

DE LA EXTREMA DERECHA A LA EXTREMA IZQUIERDA

por Guillermo de Torre

Los versos conservadores de un poeta liberal

EL SECRETO DE LOS POETAS

Ernestina de Champourcin dice....

6. panela. 27ko Belaunaldia

1927an, poeta talde bat bildu zen Sevillan, Góngora hil zenetik 300 urte iragan zirela ospatzeko, eta horrela sortu zen 27ko belaunaldia. Talde horren bereizgarriak ziren, besteak beste, haren indar sortzaile handia, une hartan nazioartean ziren mugimendurik garrantzitsuenekin zuen harremana, eta beste arte batzuekin zituen loturak. Belaunaldi horrek izan zuen garrantzirik handiena Espainiako literaturan, Urrezko Mendearen ondoren, eta itzelezko eragina izan zuen garaiko bizitza kultural, politiko eta sozialean eta ondorengo belaunaldietan.

Zein izan ziren 27ko poesiaren ezaugarririk garrantzitsuenak?

Tradizioa. 27ko belaunaldiak abangoardiarik apurtzaileenak eta herri-tradizio hispanikoa batu zituen, eta poesia tradizionalaren formak berreskuratu zituen, sentsibilitate modernoarekin berrinterpretatuta.

- *Romancero gitano* (García Lorca) eta *Marinero en tierra* (Alberti): erromantzeen eta herri-kantutegien metrika arina eta musikala.
- *La voz en el viento* (Champourcin) eta *Cántico* (Guillén): Urrezko Mendeko sonetoak eta dezimak.
- *Isla sin tierra* (Josefina de la Torre) edo *Égloga, elegía, oda* (Luis Cernuda): erromantze tradizionala eta Urrezko Mendeko formak egokitzea abangoardiako lirika intimora.

Poesia purua. 1920ko hamarkadan, poesia purua defendatzen zuen korronte batek hartu zuen indarra. Haren jarraitzaileak ahalegintzen ziren azalekotzat jotzen zuten guztia (errima, estrofak, metrika eta, bereziki, poetaren egoera emozionalak) kentzen poematik, haren esentzia besterik ez uzteko. Korronte horren ordezkari nagusia Juan Ramón Jiménez izan zen, eta eragin handia izan zuen 27ko belaunaldiko poeta askorengan.

Abangoardiak. XX. mendearen hasieran, hainbat arte- eta literatura-mugimendu sortu ziren Europan eta Latinoamerikan. Mugimendu horiek bereizgarri zuten, besteak beste, arau tradizionalekin haustea, hizkuntzarekin esperimentatzea eta egituretan berrikuntza bilatzea, eta arte guztiz berria sortu zuten.

7. panela. Ernestina de Champourcín

Ernestina de Champourcín (1905-1999)

27ko belaunaldiko poetarik garrantzitsuenetako bat izan zen. Literatur kritikari eta poeta aritu zen gerraren aurreko urteetan, eta ospe handia lortu zuen. Bera da Gerardo Diegoren *Antología* lanean agertzen diren bi emakumeetako bat.

Haren obra poetikoak etengabeko bilakaera izan zuen. Lehen etapan, amodiozko lirika erabiltzen du, eta tentsioan dago poesia puruaren eta abangoardismoaren artean. Mexikon erbesteratuta egon bitartean, haren poesiak tonu helduagoa hartu zuen, zenbaitetan mistikoa eta transzendentea, baina betiere karga emozional handikoa. Haren lanean modernitatearen irudiak, amodioa, askatasun-nahia eta hoztasun intelektuala gainditzen duen sentsibilitatea uztartzen dira, intentsitate liriko handia lortzeraino.

ITXARONALDIA

Amodioa! Oraindik ez zara iritsi eta jada hartu nauzu guztia
nire gorputzari lotua arrosondo zauritua bazina bezala.
Arteztu nazazu zuk! Nire sustrai ilunak
xurgatu dezala, blaitu arte, zuku askatzailea.

Amodioa, isiltasun ernea, itxaronaldi korapilatua
musu izatera jostatzen diren mamu zurbilez egina,
euskarririk gabeko gozotasuna, lurpeko taupada
ametsik ezkutuenaren azken tolesturan ehortzia.

Amodioa, lainoa eta izarra, paradisu sekretua
laztan berarekin irabazten eta galtzen dena:
eman nire ibilera noragabeari zure atari izenik gabeak.
Zutaz jantziko da nire biluztasun ukigabea!

Ukatzen badidazu zure estasia, ez ukatu zauria.
Tori gozotasun asaldagarria, gezi kiskalgarriaren trukean.
Erakutsi zure minik sakonenaren loria
eta kantatuko dut, hil bitartean, nire kantika kontaezina.

Agian ez zara iritsiko inoiz. Nire espiritu nekaezina
beilan dago zure zeinu misteriotsuaren zain.
Gaueko zein brisatan loratzen ari dira zure ezpainak?
Zein eguzki-zenitetan gantzutuko nau zure ukenduak?

(*Cántico Inútil*, 1936)



Panel 8. Carmen Conde

Carmen Conde (1907-1996)

Egile hau 27ko eta 36ko belaunaldiekin lotuta dago, eta hainbat genero garatu zituen, hala nola poesia, eleberria, antzerkia, saiakera eta haur-literatura. Haren poesian intentsitate liriko handiko hizkuntza darabil, eta amodioa, natura, feminitatea, giza konpromisoa eta gogoeta existentziala uztartzen ditu.

Carmen Conde Cartagenan hasi zen idazten, Madrilgo bizitza kulturaletik urrun. *Platero y yo* irakurri ondoren, gutun bat idatzi zion Juan Ramón Jiménezi, eta hark Ernestina Champourcinekin jarri zuen harremanetan. Bien artean adiskidetasun handia sortu zen, eta elkarri laguntza ematen zioten literatura-lanean.

"Beharbada bihar joanen da nire liburua inprimategira. Zer dakizu zureaz? Izugarri gustatuko litzaidake biak aldi berean ateratzea. Ziur hainbat kritikari ezagutuko dituzula, zure liburuan interesa izan dezaketenak, ale batzuk haiei bidaltzeko. Nahi baduzu, nire lagun batzuen izen eta helbideak emanen dizkizut; ziurrenik atsegin handiz irakurriko dute *Brocal*". (Ernestina Champourcinek Carmen Conderi, 1928-04-01)

IRAGATEA

Argiaren ondoren Argia zen.
Gero itsasoa zegoen, eta itsasoarekin
hiltzeko irrika bat, haren bizitza izanda.
Nire arimak, bakarrik, amets leuna arnasten zuen

haren ur geldizko adar isiletatik.
Beste izaki batzuek nire garaiera urritzen zuten
eta hegan igotzen ziren, garden.

Nire presentzia hartzen duten egun hauek
nire denboratik urrun zeuden jada...;
taupaden isiltasun bat aditzen zen.

Nire goiztiriaren goialdean txori batek kantatu zuen
eta nik errepikatu, ezin kontatuzko
argitasunez, ostertz eta neurririk gabe.

(*Ansia de la gracia*, 1945)



Panel 9. Concha Méndez

Concha Méndez (1898-1986)

Poeta, antzerkigilea eta editorea izan zen, eta haren ibilbidea independentzian eta modernotasunean oinarritu zen. Haren lanean bat egiten dute bitalismoak, askatasunaren bilaketak, amodioak, bidaiak eta norbere burua gainditzeko grina.

Haren lehen liburuetan abangoardien eragina islatzen da, eta hizkuntza dinamikoa erabiliz mugimendua, kirola eta modernitatea goresten ditu. Gerra Zibilaren eta erbestearen ondoren, haren poesiak tonu intimoagoa eta pentsakorragoa hartu zuen, nostalgia, deserrotzea eta memoria ardatz hartuta.

"Concha Méndezek idazle-gizonaren bizitza darama. Solasaldi, kafe eta abarretara joaten da (...) Bertsoak egiten ditu *tennis*ean aritzen den bezala edo igeriketa-txapelketak irabazten dituen bezala. Haren familiak idaztea debekatu dio, eta, hori ikusita, kanpora joan nahi du; Londresera joanen da ziur aski". (Ernestina Champourcinek Carmen Conderi, 1928-09-11)

AUTOMOBILA

Automobila
Klaxon-hotsaren kantata.
Kale ilunean zehar argizko harra.
Gau hotzaren erdian begietan du garra.
Hiriko narrastia, arin doa arrastan.

(*Inquietudes*, 1926)

ZABAL DA ITSASOA

Zabal da itsasoa; urrunduko gaitu;
gure arimak elkarturik katean.
Azken erretratu bat, hor finkaturik
argiki gure soak begietan.
Hartuko dut ontzi bat, kaian dago;
hari segituko dio zureak.
Bi beso zain dituzu, ez dakit non...
kairen batean... hondartza batean!

(*Poemas* 1926-1986)




Panel 10. Josefina de la Torre

Josefina de la Torre (1907-2002)

Josefina de la Torrek prestakuntza artistiko zabala jaso zuen txikitatik: musika, kantua eta poesia ikasi zituen, eta oso gazterik hasi zen idazten. 27ko belaunaldiko idazleekin zuen harremana Madrilen sendotu zen, Néstor de la Torre margolariaren inguruan; han, Federico García Lorca eta beste hainbat pertsonaia ezagutu zituen. Ernestina de Champourcinekin batera, Gerardo Diegok 1934ko bere antologia ospetsuan sartu zituen bi emakume bakarretako bat izan zen.
Bere lehen liburuak, Versos y estampas (1927), Pedro Salinasen hitzaurrea du. Salinasek «muchacha-isla» deitu zion, haren poesian paisaiak eta uharte-nortasunak zuten garrantzia nabarmenduz. Ezaugarri horiek Poemas de la isla (1930) lanean ere ageri dira. Baina Josefina de la Torre artista polifazetikoa izan zen. Gerra ondoren, abeslari, konpositore, antzerki-, zinema- eta irrati-aktore, gidoilari eta eleberrigile aritu zen.
Marzo incompleto lanarekin, isilaldi luze baten ondoren 1968an argitaratua, haren poesiak ahots intimoago eta pertsonalago baterantz egin zuen. Medida del tiempo (1989) lanean, berriz, memoria, denboraren joana eta bere belaunaldiaren esperientzia landu zituen. Madrilen hil zen 2002an, eta prentsak «27ko belaunaldiaren azken bizirik iraun zuena» zela esan zuen.

NIRE BURUAREN BILA NABIL, ETA EZ DUT AURKITZEN

Nire buruaren bila nabil, eta ez dut aurkitzen.
Nire baitako horma ilunetan barrena nabil,
isiltasunari eta hutsune dorpe honi galdezka,
eta ez dut nire zalantzen oihartzunean asmatzen.
Ez dut neure burua aurkitzen.
Eta orain, lotan bezala noa ilunpeetan,
bazter guztietako gaua haztatuz.
Eta ezin izan nintzen lur, ez esentzia, ez harmonia,
fruitu, soinu, sorkuntza, unibertso baitira.
Ez, pixkanaka desegite motel eta etsigarri hau ez,
zauri den oro galdera bihurtzen duena.
Eta nire baitako horma gorretan barrena nabil,
nire itzala aurkituko dudan unearen zain.



Panel II. Arte guztietan

Ba al zenekien...?

27ko belaunaldia ez zen idazleetara mugatu; beste arte eta jakintza-arlo batzuetara ere hedatu zen:

- Narratiba: Rosa Chacel y María Teresa León
- Margolana: Maruja Mallo eta Salvador Dalí
- Marrazketa: Margarita Manso eta Gregorio Prieto
- Musika: Manuel de Falla, Rosa García Ascot eta Rodolfo Hal ter
- Zinema: Luis Buñuel
- Filosofia: María Zambrano



Organizan
Rosa Fernández Urtasun. Departamento de Filología de la Universidad de Navarra.
Inés Irurita. Archivo General de la Universidad de Navarra

Colaboran
Bibliotecas Públicas de Navarra
Biblioteca de la Universidad de Navarra

Dirección y comisariado
Rosa Fernández Urtasun
Colabora: Adriana Obregón

Diseño gráfico
Candela Paredes

Coordinación
Raquel Cascales
Colabora: Rocío Pardo de Santayana

Guia didáctica
Ana Lopera
Esther Mora
Mercedes Aguilar
Iosu Múgica

Universidad de Navarra
ARCHIVO GENERAL | DEPARTAMENTO DE FILOLOGÍA | SERVICIO DE BIBLIOTECAS

Bibliotecas Públicas de Navarra
Nafarroako Liburutegi Publikoak

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030



Todos los documentos de las vitrinas proceden del Fondo Ernestina de Champourcin del Archivo General de la Universidad de Navarra.

Todos los libros expuestos proceden de la Biblioteca de la Universidad de Navarra.

Imágenes
La mayoría de las imágenes pertenecen al Archivo General de la Universidad de Navarra o son de copyright libre.

Otros créditos:
- Socias de la junta directiva del Lyceum Club Femenino en el salón de tertulias (Madrid, 11/12/1932). Estudio fotográfico Alfonso. Archivo General de la Administración, Ministerio de Cultura
- Fotografía de la biblioteca del Lyceum en el folleto sobre los Círculos Medina, Madrid, Sección Femenina de F.E.T. y de las J.O.N.S., 1965. Archivo General de la Administración, Ministerio de Cultura
- Retrato de Maruja Mallo en su estudio rodeada por sus obras, 1935. Vicente Moreno Díez. Archivo Moreno. Fototeca del Instituto del Patrimonio Cultural de España, Ministerio de Cultura